

MUGALARIAK. MEMORIA

Mugalariak programan parte hartu ondoren, konpainiak egin behar duen memoriarako **bide orri** bat da hau. Jarraian aurkezten ditugun atal batzuk beste partaideen balorazioa baita ere jasotzeko asmoarekin pentsatuta daude.

1. Proiektuaren laburpena. (50 hitz)

“Zuek” ikuskizunaren muina bideo domestikoak eta soinua/musika nahastea izanik, *irudiak eta soinuak tupust! egiten dutenean* izeneko tailertxo modukoa imaginatu genuen. Bertarako parte hartzaileeri haien familiako bideo bat ekartzea eskatu zitzaion. Gaiari sarrera, adibide eta ariketa zenbaiten ondoren, haiek ekarritako bideoari euren soinu banda batu ziezaiotela zen helburua.

2. Parte hartzaileak

Tailerrean Pello Gutierrez zinemagileak eta Ander Fernandez musikariak hartu zuten parte. Ikuskizuna Rouge Elea konpainiak ekoiztu duen arren betiere inguruko sortzaileen laguntza izaten dugu, horien artean Zazpit'erdi ekoizetxearena, Pello parte dena.

3. Helburuak

Hasera bateko helburua etxeko bideoen beste dimentsioak azalratzea, irudi eta soinuaren arteko erlazioaz eta obra deribatuaren kontzeptuaren inguruan aritzea zen. Tailer eta esperimendu moduan, gu biok ere taldearen parte izanik. Aldi berean helburu konkretuagoa zen partaide bakoitzak amaieran, ekarritako bideoekin muntai bat egitea.

Desorganizazioa izan zen partaideekin komunikazioan, ordutegiak ez ziren errespetatu, oso gutxik ekarri zituzten haien etxeko bideoak, beraz unean joan ginen proiektua moldatzen eta amaieran nahi baina emaitza laburragoa izan genuen. Gure planteamenduan agian denbora distribuzioa ez zen ongi aurreikusia izan.

Dena den gauza oso politak sortu ziren eta esperientzia ederra izan zen.

4. Prozesuaren kontaketa fasea:

- Proiekturaen jatorria/abiapuntua: Zuek ikuskizunaren inguruan
- Aurrekariak (lehenagoko antzeko esperientziak, sentsazioak, asmoak) Iparraldean eta Frantzian beste ikuskizunen inguruan egindako bitartekaritzak, soinuaren inguruan egindako tailerrak, zinema eta erretratuaren inguruan egindako tailerrak...
- Garapen fasea (denborak, saioen egitura, inplikazioa, arazoak, erabakiak...) Pello eta bion artean ideatu dugu tailerra, pare bat aldiz elkaru gara eta ondoren bakoitzak bere aldetik egin du lan, gehien ezagutzen ditugun arloak landuta. Lehenengo saioan sarrera teoriko bat planteatu genuen eta ariketa praktiko bat gero. Bigarren egunean aurreko eguneko emaitzak ikusi eta amaiera ariketa egin zen. Lehenago aipatutako arazoak suertatu ziren, ordutegiena eta aurretiko ezagutza ezarena batez ere
- Itxiera fasea

5. Jarraipena. ¿Proposamenik ba al dago hasitako elkarlana jarraitzeko?

Iratxe irakasleak eta partaideek motz geratu izanaren frustazioa azaldu zuten eta hurrengo urtean hobe antolatzeke gogoia agerian utzi.

6. Balorazioa.(*)

Mugalariak egitasmoak/programak, elkarlana eta harreman berriak pizten dituzten proiektuak bultzatzen ditu. Hau horrela izanik, partaide bezela, zuen iritzia jasotzea gustatuko litzaiguke. Ondorengo galderek, beste eragileekin egindako lanaren inguruan

hausnarketa bat proposatzen dute

- ondorioak, ikasketak, zertarako balio izan zaizun esperientziak? Besteeri zer ekarri ahal diogun konturatzea. Orain arte batez ere txikiekin lan egin dugu eta kasu honetan helduekin lan egiteak bestelako sentazioak utzi dizkigu, interesgarriak.
- Eraldaketaren bat egon da zuen praktiketan? Prozesu hauek zuen praktiketan txertatzeko plana duzue? (programa berri bat, beste eragileekin kolaborazio iraunkorra...)

Bada denbora bat halako praktikak egiten ditugula, batez ere iparralden, hegoalden pixkanaka egiten hasi dira baina ohitura eta ezaugarri faltak oraindik traba dira baldintza onetan egiteko. Ea egitearen poderioz hori hobetzen den.

- Zeintzuk dira dituzun baliabideak eta beharrak metodologia honekin jarraitzeko.

Instituzioekin kontaktua, egindako lanaren errekonozimendua, baliabide ekonomiko nahikoak.

7. Glosarioa.(*)

Esperientziarekin lotzen dituzun 3 hitz aipatu

ikuspegia

freskotasuna

esperimentua

8. Iruditegiak. (*)

Esperientziarekin lotzen dituzun 3 irudi. (Prozesuan hartutako irudiak, sinbolikoak, metaforikoak ...)

neska bat pasilo batetan mikrofonoari garrasika

super 8 proiektore bat txoko batetan bueltaka

bi pertsona komuneko soinuak grabatzen

(*) **beste partaideekin konpartituko ditugun atalak.**